NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK, ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ, honako hau

D. IÑAKI GALDOS LANDA EL SECRETARIO ACCTAL. DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.------------

ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita zortzian, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veintiocho de febrero dos mil diecinueve, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita zortzian, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarrieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Iñaki Larrañaga Etxabe jauna ,Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del veintiocho de febrero de dos mil diecinueve, reúnense en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarrieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Iñaki Larrañaga Etxabe, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.

Ez dira bertaratu; Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen izenean: Bittori Zabala Fernandez andrea, Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean: Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna.

No asisten; Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco: Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

<u>LEHENENGOA.- 2019KO URTARRILAREN 31N EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-</u>

<u>PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 31 DE ENERO DE 2019.-</u>

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeian bederatzian egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día treinta y uno de enero de dos mil diecinueve, la misma es aprobada por unanimidad.

BIGARRENA.- AITA AGIRRE ERAIKINA ERABERRITZEKO OBREN KONTRATUARI DAGOZKION EPEAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK EZARTZEKO ESPEDIENTEA ABIAN JARTZEA.-

SEGUNDO.- INICIO DEL EXPEDIENTE SOBRE IMPOSICION DE PENALIDADES POR INCUMPLIMIENTO DE PLAZOS EN EL CONTRATO DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO AITA AGIRRE.-

Eta hemezortziak eta berrogei minutu direnean, Udal Talde Sozialistaren Zinegotzia den Nerea Alustiza Alonso andrea bilerara bertaratu da.

Siendo las dieciocho horas y cuarenta minutos, se incorpora a la sesión la Concejal del Grupo Municipal Socialista Dª. Nerea Alustiza Alonso.

Idazkari jaunak Habitat Batzordearen honako irizpen hau irakurri du:

Por parte del Sr. Secretario, se procede a dar lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

"2017ko ekainaren 15ean, Aita Agirre eraikina eraberritzeko obrak exekutatzeko kontratua sinatu zen Udalaren eta IZA Obras y Promociones SA enpresaren artean.

"El 15 de junio de 2017 se suscribió entre el Ayuntamiento e IZA Obras y Promociones, SA, el contrato para la ejecución de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre.

2017ko uztailaren 14an horri zegokion zuinketa akta sinatu zen.

En fecha 14 de julio de 2017 se suscribió el acta de replanteo correspondiente.

Kontratuan aurreikusi zen exekuzio epea 14 hilabetekoa izango zela; hala ere, kontratuan bertan aurreikusten zen epe hori bi astez etetea, 2017ko abuztuan, eta beste bi astez, 2018ko abuztuan; izan ere, San Bartolome jaietan Aita Agirre plazan instalatzen diren barraken ondorioz, obrak geldiarazi egin behar ziren epe horretarako.

El plazo de ejecución previsto en el contrato era de 14 meses, a contar de la suscripción del acta de replanteo, si bien en el propio contrato se contempla la suspensión del plazo por dos semanas en agosto de 2017 y otras dos semanas en agosto de 2018, ya que con ocasión de las fiestas de San Bartolomé y la instalación de barracas en la plaza Aita Agirre, las obras se paralizarían por dicho espacio de tiempo.

Kontratuaren esleipen prezioa 2.393.252,99 €-koa izan zen, BEZ sartu gabe.

El precio de adjudicación del contrato fue de 2.393.252,99 €, IVA excluido.

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 25ean hartu zuen akordioaren bidez, Aita Agirre eraikina eraberritzeko obrak exekutatzeko epea bi hilabete luzatzea onartu

El Pleno de la Corporación, mediante acuerdo adoptado el 25 de octubre de 2018, aprobó la ampliación del plazo de ejecución de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre en dos meses, de tal forma que el nuevo plazo

zuen. Hartara, exekuzio epe berria 2018ko abenduaren 14an bukatzekoa zen.

Beste alde batetik, Tokiko Gobernu Batzarrak, Udalbatzarraren eskuordetzaz, 2018ko azaroaren 5ean hartu zuen akordioaren bidez, behin betiko onartu zen Aita Agirre eraikina eraberritzeko obren kontratua aldatzeko espedientea. Horiek horrela:

- Espedientearen arabera, esleipen prezioa 260.520,08 € handitu zen, BEZ sartuta.

- Horretaz gain, obrak exekutatzeko epea hilabete luzatu zen.

Aldaketa horren ondorioz kontratuaren prezioa 2.895.836,18 €-an finkatu zen BEZ sartuta, eta exekuzio epea 2019ko urtarrilaren 14an bukatzekoa zen.

Obra zuzendariak, Jovino Martinez Sierrak, 2019ko urtarrilaren 23an sinatutako txostena aurkeztu zen, non aditzera ematen baitzen, obrak bukatzeko epea urtarrilaren 14an bukatu bazen ere, obrak oraindik ere ez zirela bukatu.

Ildo horretatik, Udal Zerbitzu Teknikoek idatzi duten txostena aztertu da.

Era berean, aztergai dugun kontratazioa arautzen duen administrazio baldintza berezien Pleguaren 14. baldintza, hitzez hitz honako hau dioena, aztertu da:

"14. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEAK

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua exekutatzeko epe osoa edo epearen

de ejecución finalizará el 14 de diciembre de 2018.

Por otro lado, mediante acuerdo de Junta de Gobierno de 5 de noviembre de 2018, por delegación del Pleno de la Corporación, se aprobó definitivamente el expediente de modificación del contrato de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre, de forma que:

- De conformidad al mismo, el precio de adjudicación se incrementó en 260.520,08 €, IVA incluido.

- Asimismo, se amplió el plazo de ejecución de las obras en un mes.

En virtud de dicha modificación, el precio del contrato quedó fijado en 2.895.836,18 €, IVA incluido, y el plazo de ejecución finalizaba el 14 de enero de 2019.

Por parte de la Dirección de obra, Jovino Martínez Sierra, se presenta informe suscrito en fecha 23 de enero de 2019, poniendo de manifiesto que si bien el plazo para la finalización de las obras había concluido el 14 de enero pasado, las obras no habían terminado aún.

Visto el informe redactado los Servicios Técnicos Municipales.

Vista la cláusula 14 del Pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen la contratación que nos ocupa, que dice literalmente lo siguiente:

"14. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

A) DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto del

zati bat bete ez duelako, berandutzan erortzen baldin bada, Administrazioak kontratua bertan behera utzi ahal izango du, eta kasu horretan bermea galdu egingo da; edo bestela, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,20 euro kontratuaren prezioan ageri diren 1.000,000 euroko.

cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,20 euros diarios por cada 1.000,00 euros del precio del contrato.

Horrela bada, Kontratazio Mahaiak eguneroko zigorra honako proportzio honetan ezartzeko egin duen proposamena aztertu da: 0,20 € eguneko, kontratuaren prezioan ageri diren 1.000,00 euroko, atzeratzen den egun bakoitzeko.

Vista la propuesta realizada por la Mesa de Contratación, sobre la imposición de una penalidad diaria en la proporción de 0,20 € diarios por cada 1.000 € del precio del contrato por día de retraso.

Hortaz, kontuan izanik kontratuaren prezioa, BEZ sartuta, 2.895.836,18 €-koa dela, eta kontratuan ageri diren 1.000,00 euroko ezarri behar den zigorra eguneko 0,20 eurokoa dela, 631,27 €-ko zigorra ateratzen da atzerapen egun bakoitzeko.

Considerando que aplicando una penalidad de 0,20 € diarios por cada 1.000 € del precio del contrato, y teniendo en cuenta que el precio del contrato asciende a 2.895.836,18 €, IVA incluido, resulta una penalización de 631,27 € por cada día de retraso.

Horren haritik, kontuan izan behar da, oraindik ere, ez direla obrak bukatu, eta ezin dela zigorraren zenbateko guztia kalkulatu, ezin da eta jakin zenbat egun atzeratuko diren lanak. Atzerapen horren baitan, 2019ko urtarrilaren 15etik obren harrera egiteko akta sinatu arteko egunak sartuko dira, biak barne.

Considerando que aún, a fecha de hoy, no se han terminado las obras y no se puede calcular el importe total de la penalidad, al no conocerse los días de retraso. Dicho retraso estará constituido por los días que transcurran desde el 15 de enero de 2019 hasta el día en que se suscriba el correspondiente acta de recepción de las obras, ambos inclusive.

Horiek horrela, alde batetik, arestian adierazitakoa kontuan izanik, erantsitako dokumentazioa aztertu ostean, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legeari Buruzko Testu Bateratuaren 212. artikuluan ezarritakoaren arabera,

A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de acuerdo con la misma, y de conformidad con lo establecido en el artículo 212 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre.

Eta bestetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarraren Osoko Bilkura denez.

A la vista de que el órgano de contratación es el Pleno de la Corporación, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Texto

Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Habitat Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio ondoko **AKORDIOAK** har ditzala:

La Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

**Lehenengoa.-** Bidezkoa bada, atzerapena dela eta, IZA Obras y Promociones kontratistari kontratuan prezioan ageri diren 1.000 euroko egunero 0,20 euroko zigorra jartzeko prozedura abian jartzea. Hala, zigorraren zenbatekoa 631,27 €-koa izango da, atzerapen egun bakoitzeko.

**Primero.-** Iniciar el procedimiento para acordar, si procede, la imposición de una penalización por demora al contratista IZA Obras y Promociones, SA, a razón de 0,20 € diarios por cada 1.000 € del precio del contrato, y que asciende a 631,27 € por cada día de retraso.

**Bigarrena**.- Ebazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, obren esleipendun den IZA Obras y Promociones SAri hamar eguneko entzunaldia eskaintzea, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

**Segundo.-** Conceder un período de audiencia, por plazo de diez días, a contar del día siguiente al de recibo de la presente, a la empresa adjudicataria de las obras, IZA Obras y Promociones, SA, a fin de que presente las alegaciones que estime pertinentes.

**Hirugarrena.-** Zigorra ezartzea beharrezkoa baldin bada, honako hau erabakitzea: zigorra konpentsazio bidez ezar dadila, zigorrari dagokion zenbatekoa, onartzeko eta ordaintzeko dagoen azken obra-egiaztagiritik kenduta.

**Tercero.-** Determinar que en caso de que proceda la imposición de la penalización, la misma se aplique, mediante compensación, detrayendo la cantidad correspondiente de la última de las certificaciones de obra que aún queda pendiente de aprobación y abono.

**Laugarrena.-** Alkateari zigorra ezartzeko prozedura hau behin betiko onartzeko eskumena ematea, eta aldi berean, organo horri eskumena ematea, hartara, behin obra bukatu eta harrera akta eginda, eta atzerapenaren egiazko neurria zein den jakin ostean, zigorrari dagokion zenbateko zehatza erabakitzeko."

**Cuarto.-** Delegar en la Alcaldía la aprobación definitiva del presente procedimiento de imposición de la penalización y delegar, a su vez, en dicho órgano, la determinación del importe concreto al que ascienda la penalización cuando, una vez finalizada la obra y suscrito el acta de recepción, se conozca el alcance real del retraso."

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Zinegotzia den Larrañaga jaunak dio bere taldea hartzen diren neurriekin ados dagoela.

El sr. Larrañaga Concejal del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar dice que su grupo está de acuerdo con las medidas adoptadas.

Hala ere, Plenoa aprobetxatu nahi du, batzordean bertan esandakoa, labur-labur aipatzeko.

Aun así, quiere aprovechar el Pleno para mencionar brevemente lo que se dijo en la comisión.

Mahai gainean jarri nahi dugu atzerapenaren ete neurri honen ondorioz, sortu daitezkeen presek, sortu ditzaketen ondorioak.

Quiere poner sobre la mesa las consecuencias que pueden acarrear las prisas que pueden

surgir con motivo de este retraso y la adopción de estas medidas.

Alde batetik, emaitzen inguruko kezka, hau da, obra azkar exekutatzeagatik, izan daitezkeen emaitzak.

Por un lado, existe una preocupación por el resultado, es decir, por los resultados que pueden darse con motivo de ejecutar la obra con rapidez.

Horretarako atentzio berezi bat jarri beharko da, batez ere Hirigintza batzordetik, rezepzioa egiterako orduan baieztatzeko entregatzea prometitu dena, betetzen dela.

Por ello, se le debería prestar especial atención al hecho de confirmar que se cumple con lo que se prometió a la hora de realizar la recepción.

Aldi berean, exekutatzeko plazo horiek betetzeko, eman daitezkeen lan baldintzen gainean atentzioa jartzea, guretzat azpimarragarria da.

Asimismo, para nosotros es importante que se ponga atención a las condiciones de trabajo que se puedan dar para poder cumplir con esos plazos de ejecución.

Horretaz aparte, bigarren puntu bat komentatu nahiko genuke.

Además, querríamos comentar un segundo punto.

Kasu honetako lekzioa ikasita, hemendik aurrera ateratzen diren esleipenetan, kontutan izan beharko da, pleguak idazterakoan, nola txertatu kriterio batzuk, exekuzio enpresaren fidagarritasuna bermatzeko, era kontrastagarrian.

Tras aprender esta lección, en las adjudicaciones que se convoquen en adelante, a la hora de redactar los pliegos, deberá tenerse en cuenta el modo en el que se deben incorporar unos criterios para garantizar de forma contrastada la fiabilidad de ejecución que tiene la empresa.

Zentzu horretan, ez dugu ezer konkretuki planteatzen, baina uste dugu kreatiboagoak izan behar garela eta apur bat urrundu behar dela formulario tipikoetatik, batez ere obra potente hauetan aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin.

En ese sentido, no planteamos nada concreto, pero pensamos que debemos ser más creativos, y que debemos alejarnos un poco de los formularios típicos, sobre todo, para que de aquí en adelante no sucedan cosas similares ante las obras potentes.

EAJ Udal Taldeko Zinegotzia den Arraiz jaunak dio, batzordean esan genuen bezala, nahi izanez gero elkar gaitezkeela enpresarekin, baina langileen lan baldintzak bermatuta daudela.

El sr. Arraiz Concejal del Grupo Municipal del PNV menciona que, tal y como se dijo en la comisión, si queremos, nos podemos reunir con la empresa, pero que las condiciones laborales del personal están garantizadas.

Guk, ez daukagu inolako presarik. Beraz obra bukatzen denean, bukatuko da, eta kalitatean ez dugu eskatimatuko.

Nosotros no tenemos ninguna prisa. Por tanto, cuando la obra se termine, se terminará, y no escatimaremos en calidad.

Ez dago besterik. Proiektuan dagoena exekutatu arte, ez dugu rezepzionatuko obra bat, ez dugulako inongo presarik.

No hay más. Hasta que se ejecute el proyecto, no recepcionaremos la obra, porque no tenemos ninguna prisa.

Enpresaren fidagarritasunari dagokionez, guk eskatzen ditugu egunean izatearen ziurtagiriak baita "informes de buena ejecución", eta uste dut legalki eska daitezkeen gauza guztiak eskatzen ditugula.

En cuanto a fiabilidad de la empresa, nosotros pedimos tener al día los certificados, así como "los informes de buena ejecución", y creemos que exigimos todas las cosas que son exigibles.

Hortik aurrera, legalki zer gehiago eska daitekeen ez dakit.

A partir de ahí, no sabemos no sé qué más se puede exigir legalmente.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu eta akordio bilakatu da.

Sometida a votación el dictamen es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de acuerdo.

HIRUGARRENA.- "OLAIZAGA KIROLDEGIKO IGERILEKU ESTALIAK HANDITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA" IDAZTEA, BAITA PROIEKTU HORRI DAGOZKION OBREN EXEKUZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN PLEGUAK ERE ONARTZEA.-

TERCERO.- APROBACIÓN DEL "PROYECTO DE EJECUCIÓN DE LA AMPLIACIÓN DE LAS PISCINAS CUBIERTAS DEL POLIDEPORTIVO OLAIZAGA", ASÍ COMO DE LOS PLIEGOS DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS Y TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR LA ADJUDICACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS CORRESPONDIENTES AL MISMO.-

Idazkari jaunak Habitat Batzordearen honako irizpen hau irakurri du:

Por parte del Sr. Secretario, se procede a dar lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

"Olaizaga kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko exekuzio proiektua" aurkeztu da, Jovino Martinez Sierra arkitekto jaunak idatzitakoa.

"Se presenta el "Proyecto de ejecución de la ampliación de las piscinas cubiertas del polideportivo de Olaizaga", redactado por el Arquitecto D. Jovino Martinez Sierra.

Era berean, baldintza administratiboen eta teknikoen pleguak aurkeztu dira, hau da, prozedura irekiaren bitartez, proiektuari dagozkion obren exekuzioa arautuko dutenak.

Se presentan, asimismo, los pliegos de cláusulas administrativas y técnicas que han de regir la adjudicación, por procedimiento abierto, de la ejecución de las obras correspondientes al mismo.

Hala, obren kostua kontuan izanik, uste da kontratuaren esleipena prozedura irekiaren bitartez egin behar dela, kalitate-prezio harreman egokiena duen eskaintzaren alde, eta hainbat esleipen irizpide kontuan izanda, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138, 150-152 eta 157-158 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Estimándose, en base a la cuantía de las obras, que la adjudicación del contrato ha de realizarse a través de un procedimiento abierto, oferta con mejor relación calidad-precio, con varios criterios de adjudicación, conforme a lo previsto en los artículos 138, 150 a 152 y 157 y 158 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Era berean, lan horiek kontratatzeko bideratu den espedientearen berri eman da:

Kontratuaren ezaugarri nagusiak ondorengoak dira:

Xedea: "Olaizaga kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko exekuzio proiektuan." aurreikusitako obrak exekutatzea.

Kontratu mota: Obrak

Prozedura: irekia.

Aurrekontua: 3.219.153,52 €, BEZ gabe.

BEZ (% 21): 676.022,24 €

Prezioa (BEZ sartuta): 3.895.175,76 €
Exekuzio epea: 14 hilabete.

Prezioen berrikuspena: ez dagokio.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da, gaur egun, badagoela kontratuaren ondorioz sortuko diren betebeharrei aurre egiteko egokia eta nahikoa izango den aurrekontuko izendapena. Beraz, aurrekontuen arloan eskumena duen organoak hitzematen du beharrezkoak diren kredituak gordeko dituela eraginda geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuan.

Bestalde, kontuan izan behar da, esleitzeko, eta halaber, eskaintza ekonomiko egokienaren aldeko adierazpena egiteko, eta bidenabar, aztergai dugun lizitazioaren xede den kontratua esleitzeko eskumena duen organoa Udalbatzarraren Osoko Bilkura dela. Hala, organo horrek ohiko bilkurak hilean behin egiten dituela kontuan izanik, obrak esleitzeko espedientea arintze aldera, komenigarria da Alkateari Udalbatzarrak esleipendun izateko proposatutako enpresari kontratua esleitzeko eskumena eskuordetzan ematea, betiere,

Asimismo, se da cuenta del expediente tramitado para la contratación de dichos trabajos.

Las características principales del contrato son las siguientes.

Objeto: Ejecución de las obras contempladas en el "Proyecto de ejecución de la ampliación de las piscinas cubiertas del polideportivo de Olaizaga".

Tipo de contrato: Obras.

Procedimiento: abierto.

Presupuesto (IVA excluido): 3.219.153,52 €

IVA (21%): 676.022,24 €

Precio (IVA incluido): 3.895.175,76 €
Plazo de ejecución: 14 meses.

Revisión de precios: no procede.

Considerando que, a día de hoy, existe consignación presupuestaria adecuada y suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas del contrato que nos ocupa y que el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los futuros ejercicios que resulten afectados.

Considerando que si bien el órgano competente para realizar la propuesta de adjudicación a favor de la oferta con mejor relación calidad-precio, así como para la adjudicación del contrato objeto de la licitación que nos ocupa, es el propio Pleno de la Corporación. Habida cuenta que dicho órgano celebra sesiones ordinarias una vez al mes, a fin de agilizar el expediente de adjudicación de las obras es conveniente delegar en la Alcaldía la facultad de adjudicación del contrato a la empresa propuesta por el Pleno como adjudicataria,

enpresak esleipen proposamenean eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero.

una vez ésta haya presentado la documentación solicitada en la propuesta de adjudicación.

Horiek horrela, 2017ko azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki, Habitat Batzordeak Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako akordio hauek har ditzala:

En virtud de lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de 2017 de Contratos del Sector Público, la Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes acuerdos:

**Lehenengoa.-** "Olaizaga kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko exekuzio proiektua", Jovino Martinez Sierra arkitekto jaunak idatzi duena, onartzea.

**Primero.-** Aprobar el "Proyecto de ejecución de la ampliación de las piscinas cubiertas del polideportivo de Olaizaga", redactado por el arquitecto D. Jovino Martínez Sierra.

**Bigarrena.-** "Olaizaga kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko exekuzio proiektuan" aurreikusitako obrak kontratatzeko espedientea onartzea, BEZ sartuta, gehienez ere, 3.895.175,76 €-ko lizitazio prezioarekin, eta 14 hilabeteko exekuzio epearekin.

**Segundo.-** Aprobar el expediente para la contratación, de las obras correspondientes al "Proyecto de ejecución de la ampliación de las piscinas cubiertas del polideportivo de Olaizaga" por un precio máximo de licitación de 3.895.175,76 €, IVA incluido, siendo el plazo de ejecución de 14 meses.

**Hirugarrena.-** Aztergai dugun kontratu honen lizitazioa arautuko duten Baldintza administratibo berezien eta Baldintza teknikoen Pleguak onartzea.

**Tercero.-** Aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y cláusulas técnicas que regirán la licitación del contrato que nos ocupa.

**Laugarrena.-** BEZ sartuta, gehienez ere, 3.895.175,76 €-ko gastua onartzea, kontratuaren ondorioz sortuko diren gastuei aurre egiteko.

**Cuarto.-** Aprobar el gasto máximo de 3.895.175,76 € IVA incluido, para hacer frente a las obligaciones derivadas del contrato.

**Bosgarrena.-** Alkateari Udalbatzarrak esleipendun izateko proposatu duen enpresari kontratua esleitzeko eskumena ematea, betiere, enpresak esleipen proposamenean eskatu den dokumentazioa aurkeztu eta gero

**Quinto.-** Delegar en la Alcaldía la facultad de adjudicación del contrato a la empresa propuesta por el Pleno como adjudicataria, una vez esta haya presentado la documentación solicitada en la propuesta de adjudicación.

**Seigarrena.-** Esleipen prozedura abian jartzeko xedapena ematea, eta halaber, obrak esleitzeko lehiaketa irekirako eta aldez aurreko tramitaziorako deialdia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Elgoibarko Udalaren kontratatzaile profilean."

**Sexto.-** Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación convocando concurso abierto para la adjudicación de las obras, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Elgoibar."

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Zinegotzia den Larrañaga jaunak dio, bere taldeak ikusten duela Kiroldegian anpliazioa behar erreal bat dela, eta momentukoa.

Horretaz gain uste du gaur egungo azpiegitura hau, eguneratzea eta hobetzea dela zentzuzkoena, hau da, daukagun espazio hori hobetu eta berriztatzea.

Hala eta guztiz ere, komentatu nahi dugu izan dugun sorpresa, orain dela gutxi aurkeztu eta onartu duzuen aurrekontuen barruan ez agertzea obra honek suposatuko duen kostua.

Hori kritikagarria dela iruditzen zaigu.

Bestalde, ez zaigu ondo iruditzen, behintzat gure postura izango litzateke, orain momentuan, horrelako inbertsio bat aurrera eramatea, frentean eta hain gertu daukagunez zita elektorala, esleipenari aurrera egiteko momentua ez dela orain unerik onena.

Horregatik, gure botoa abstentzioa izango da, kontuan izanda, hasieran esan dudan bezala, beharra duen zerbait dela.

EAJ Udal Taldeko Zinegotzia den Arraiz jaunak dio, aurrekontuan sartuta dagoela 1.000.000€-ko aurreikuspena hirigintzako partida batean, eta azkenean, proiektu plurianual bat denez, hurrengo urteko aurrekontuan egongo da hurrengoko zatia.

Beraz, aurrekontuetan agertzen da aurten tokatuko litzatekeen zatia kubritzeko.

Bestalde, gu sartu ginenean, martxan jarri genuen lehenetariko gauza bat izan zen hau, eta 2015eko azaroan pasatu genuen batzordetik, gobernuari eskatzea partzela hori guri bueltatzeko.

Hori lortu genuenean, Diputazioarekin izan ginen kontaktuan, eta jakin izan genuen lehendik aterata zuten dirulaguntza lerro bat

El sr. Larrañaga Concejal del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar dice que su grupo ve que la ampliación del Polideportivo es una necesidad real, y actual.

Además, piensa que lo más sensato es actualizar y mejorar esta infraestructura que disponemos en la actualidad, es decir, mejorar y renovar el espacio que tenemos.

No obstante, queremos comentar la sorpresa que hemos tenido, es decir, que en el presupuesto que habéis presentado y aprobado recientemente no figure el coste que supondrá esta obra.

Consideramos que eso es criticable.

Por otro lado, no nos parece bien llevar a cabo en este momento una inversión de este tipo, por lo menos esa sería nuestra postura; porque teniendo en frente y tan cerca una cita electoral, no nos parece el momento más adecuado para llevar adelante la adjudicación.

Por ello, nos vamos a abstener, teniendo en cuenta, como he dicho al principio, que es algo que es necesario.

El sr. Arraiz Concejal del Grupo Municipal del PNV dice que en el prespuesto se ha incorporado una previsión de 1.000.000 de € en una partida de urbanismo, y que finalmente, como se trata de un proyecto plurianual, la siguiente parte se encontrará en el proyecto del próximo año.

Por tanto, en los presupuestos se recoge lo que cubriría la parte del presente año.

Por otro lado, cuando comenzamos nosotros, esta fue una de las primeras cosas que pusimos en marcha: pasamos el tema por comisión en noviembre de 2015, para solicitar al gobierno que nos devolviera la parcela.

Cuando conseguimos eso, nos pusimos en contacto con la Diputación, y supimos que estaban revisando una línea de subvención

errebisatzen ari zirela, eta 2019-2021 kirol ekipamenduak berriztatzeko programa baten barruan sartu ginen.

que habían publicado con anterioridad, y nos metimos en un programa para la renovación de equipamientos en 2019-2021

Ondorioz, pleguetan eta beste edozein udalerrik sinatu dituen hitzarmenetan agertzen den bezala, guk sinatutako hitzarmenean azaltzen da, obrak esleituta egon behar direla maiatzerako.

En consecuencia, tal y como figura en los pliegos y en los convenios firmados por otros municipios, en el convenio que firmamos figura que las obras deberán estar adjudicadas para mayo.

Beraz, margen bat eduki daiteke, baina azkenean ez da zita elektoral batengatik hau orain martxan jartzen, baizik eta hitzartutakoa bete egin behar dugulako, eta guri ematen diguten dirulaguntza 2019 eta 2020 urteetan aurreikusten delako. Beraz, bi urte horietan exekutatu beharko dira obrak.

Por tanto, se puede tener un margen, pero realmente, esto no se pone en marcha ahora por una cita electoral, sino porque hemos de cumplir lo pactado, y porque la subvención que nos conceden se prevé para los años 2019 y 2020. Por tanto, las obras deberán ser ejecutadas en esos dos años.

2019an, hasiko bagina elekzioak eta gero, ez genuen edukiko exekutatzeko inolako aukerarik, ezin izango genuke hori justifikatu, eta 2019ko dirulaguntza hori galdu egingo genuke.

Si comenzáramos en 2019 tras las elecciones, no tendríamos ninguna posibilidad de ejecución, no podríamos justificarlo, y perderíamos la subvención de 2019.

Beraz, nire ustez nahiko justifikatuta dago orain hastea esleipen honekin.

Por tanto, en mi opinión, está bastante justificado comenzar ahora con esta adjudicación.

Obrak irailean hasten badira, bai. Azkenean tramite bat da.

Sí, en el caso de que las obras se inicien en septiembre. A fin de cuentas, se trata de un trámite.

Bozketa egin ondoren, irizpena onartu eta akordio bilakatu da honako emaitza honekin:

Sometido a votación, el dictamen es aprobado, elevándolo a la categoría de acuerdo, con el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE).

- Aurkako botoak:5 (EHBildu)

- Votos a favor: 10 (PNV, PSE-EE)

- Votos en contra 5 (EHBildu)

LAUGARRENA.- TRENBIDE KALEA 3 ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINAREN JABEEK AURKEZTU DUTEN BIRJARPEN ERREKURTSOA, TRENBIDE KALEA 1 ETA 3 ZENBAKIETAKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURKAKOA.- Aho batez onartu eta akordio bilakatu da Habitat Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

CUARTO.- RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR LOS PROPIETARIOS DEL EDIFICIO SITO EN TRENBIDE KALEA, 3 CONTRA LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE TRENBIDE KALEA, 1 Y 3.- Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

Imanol Zabala Sarasolak, Julian Arrillaga Gorriti jaunaren eta Trenbide kalea 3 zenbakian dagoen eraikinaren gainerako jabekideen izenean eta ordezkaritzan dihარduenak, birjarpen errekurtsoa aurkeztu du Udalbatzarrak 2018ko irailaren 27an egin zuen bileran hartutako akordioaren aurka, zeinaren bidez Trenbide kalea 1 – 3 zenbakietako xehetasun azterketa onartu baitzen.

Imanol Zabala Sarasola, actuando en nombre y representación de D. Julian Arrillaga Gorriti y resto de copropietarios del edificio sito en Trenbide kalea, 3, se interpone recurso de reposición contra el acuerdo de Pleno adoptado en sesión celebrada el 27 de septiembre de 2018, por el que se aprueba definitivamente el estudio de detalle de Trenbide kalea 1 – 3.

Aurkeztutako errekurtsoan, laburbilduta, honako hau aipatzen zen:

En el recurso formulado se recoge, sucintamente, lo siguiente:

1.- Xehetasun azterketaren erredaktoreek ez dute Trenbide kalea 3 zenbakiko jabekide guztien agindua jaso. Ondorioz ez dute agiria idazteko eta tramitatzeko legitimaziorik.

1.- Los redactores del estudio de detalle no cuentan con el encargo de todos los copropietarios de Trenbide kalea, 3. En consecuencia no cuentan con legitimación para la redacción y tramitación del documento.

2.- HAPOn zuzenean gauzatzeko partzelatzat hartzen dira xehetasun azterketa honen xede diren partzelak. Beraz, ez da beharrezkoa antolamenduak deskribatu gabeko unitateetan sartzea, ezta ere, onuren eta kargen beste banaketa bat ekarriko duen inolako kudeaketa tresnarik sustatzea.

2.- El PGOU contempla las parcelas objeto de este estudio de detalle como parcelas de ejecución directa. No es por tanto necesario ni integrarse en unidades no descritas por el planeamiento, ni promover ningún tipo de instrumento de gestión que implique una nueva distribución de beneficios y cargas.

3.- Xehetasun azterketan ageri den proposamenak ez du justifikatzen kudeaketa edo finantzaketa arazorik dagoenik, eta ezta ere ez du bermatzen, gutxienez, Trenbide kalea 3 zenbakiari dagokion aprobetxamendua.

3.- La propuesta contenida en el estudio de detalle no justifica la existencia de problemas de gestión y financiación, ni garantiza el desarrollo, al menos del aprovechamiento correspondiente a Trenbide kalea, 3.

4.- Arestiko agiria ez da birpartzelatzeko proiektua; ezinezkoa da, beraz, emandako orubeez hitz egitea edo hirigintzako aprobetxamenduen eta kargen banaketak ezartzea.

4.- El documento en cuestión no es un proyecto de reparcelación, por lo que no cabe referirse a solares aportados ni establecer repartos de aprovechamientos y cargas de urbanización.

5.- Trenbide 1 eta 3 zenbakietako eraikinek ez dute exekuzio unitate bat osatzen, eta xehetasun azterketa ere ez da hori mugatzeko tresna. Gainera, eraikina erabiltzeko baldintzak eta egungo partzelazioa finkatuta daude.

5.- Los edificios 1 y 3 de Trenbide kalea no conforman una unidad de ejecución y un estudio de detalle tampoco es el instrumento adecuado para su delimitación. Además, las condiciones de uso de edificación y parcelación existentes están consolidadas.

8,3 epigrafean antolamenduan aurreikusitako azalera eraikiak aipatzen direnean, ez da hori justifikatzen, eta ez da ere adierazten zergatik tratatzen diren hiru orubeak orube bakar bat sortuko balitz bezala. Eta gainera, antiekonomikoa da, eta oztopo bat ere bai, hiru partzelen kudeaketa bateratzen saiatzea, kontuan izanik ez dela beharrezkoa hori egitea.

Cuando en el epígrafe 8,3 se refiere a superficies construidas previstas en la ordenación, no justifica la misma ni el porqué del tratamiento de los tres solares como uno resultante. Además, resulta antieconómico y un inconveniente tratar de unir la gestión de tres parcelas cuando no resulta necesario.

6.- 9. epigrafean, azkenean, ez da zehazten proposatutako antolamenduaren deskribapena.

6.- En el epígrafe 9, no se termina de concretar la descripción de la ordenación propuesta.

7.- 11. epigrafean, aparkalekuetarako sarbideari buruzkoan, ez da egiten inolako aipamenik garajeek ondoko orubeen artean izango duten pasabide zortzapenari buruz..

7.- En el epígrafe 11, referido a accesos a los aparcamientos, se omite cualquier referencia a las servidumbres de paso para garajes, entre solares adyacentes.

8.- Lurzoruaren lagapenei buruzko 13. epigrafean ere ez da zehazten zein diren lagako diren partzelak, horren ordez, aipamen orokorra egiten da.

8.- En el epígrafe 13 de cesiones de suelo, tampoco concreta cuales son las parcelas de cesión, recogiendo una mención genérica.

9.- Gune libreen kalifikazioa ez dator bat xehetasun azterketekin. Estandarrekiko egokitzapena hiri antolamenduko plan berezi baten bidez egingo da.

9.- La calificación de espacios libres no corresponde a los estudios de detalle. La adaptación a los estándares se llevará a cabo mediante un plan especial de ordenación urbana.

10.- Xehetasun azterketaren eranskinaren memoriak ez du justifikatzen, ezta behar bezala kuantifikatzen ere, Trenbide kalea 3 zenbakian dauden aprobetxamenduak.

10.- La memoria del anexo del estudio de detalle no justifica ni cuantifica correctamente los aprovechamientos existentes en Trenbide kalea, 3.

Aipatutakoagatik guztiagatik, arestiko xehetasun azterketaren onarpena ezeztatzeko eskaera egiten dute

Por todo lo anterior, solicitan se revoque la aprobación del citado estudio de detalle.

Ildo horretatik, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena azterturik, ondorengoa izan behar da kontuan.

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales, y teniendo en cuenta lo siguiente:

-Trenbide kalea 1 zenbakiko jabeek sustatu dute xehetasun azterketa da; beraz, logikoa da agiria idatzi dutenek Trenbide kalea 3 zenbakiko jabeen agindua ez izatea. Horrek,

-El estudio de detalle ha sido promovido por los propietarios de Trenbide kalea, 1, por tanto, es lógico que los redactores del documento no contaran con el encargo de los propietarios de Trenbide kalea, 3. Ello no

hala ere, ez dio zilegitasunik kentzen bideratu den tramitazioari.

obstante, no deslegitima la tramitación seguida.

-Aztergai dugun xehetasun azterketaren xedea da HAPOren "1.C Lekueder" eremuan dagoen Trenbide kalea 1 eta 3 zenbakietako eraikinen lerrokadurak eta sestrak zehaztea.

-El objeto del estudio de detalle que nos ocupa es concretar las alineaciones y rasantes de los edificios 1 y 3 de Trenbide kalea ubicados en el área "1.C Lekueder" del PGOU.

-Eremu horretan HAPOk, oro har, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehakatuaren baldintzak, plan hori egin aurretik zeudenak, finkatzen ditu, hau da, antolamenduko Arau Subsidiario zaharretan aurreikusita zeuden baldintzak finkatzen ditu.

-En dicho Area, el PGOU consolida, con carácter general, las condiciones de ordenación estructural y pormenorizada preexistentes a dicho plan, es decir, consolida las condiciones contempladas en las antiguas NNSS del planeamiento.

Xehetasun Azterketan aurkezten den proposamenak Trenbide 1 eta 3 zenbakietako eraikinak ordezkatzeko baldintzak zehazten ditu. Hala, Arau Subsidiario zaharretan Eremu horrentzat ezarritakoaren arabera, dauden eraikinak ordezkatzen badira, beheko solairua, lau solairu garai eta sotoak izango dituen bloke bat aurreikusten da Trenbide 1 eta 3 zenbakiaren jatorrizko hiru finketan, eta ondoko ortuetan.

La propuesta presentada en el Estudio de Detalle, define las condiciones para la sustitución de las edificaciones Trenbide 1 y 3. De conformidad a lo dispuesto en las antiguas NNSS para dicha Area, se contempla, en caso de sustitución, un bloque de planta baja y 4 plantas altas con sótanos en la totalidad de las tres fincas originales: Trenbide 1 y 3 y las huertas colindantes.

-Proposamenak Arau Subsidiarioetan ezarrita dauden sestra gaineko lerrokadurak mantentzen ditu, eta lerrokadura horiekin jarraitzen du Trenbide kalean barrena. Hala, 14 m-ko hondoa izango du; eta beheko solairuan, hiru metroko hondoa izango duen estalpea Trenbide kalearen aldera. Era berean, Trenbide kalearen kotan, sestra azpiko aparkalekuen gainean, dagoen plaza mantentzen da.

-La propuesta mantiene las alineaciones sobre rasante establecidas en las NNSS, siguiendo con las alineaciones del resto de Trenbide kalea y un fondo de 14m, y porche en planta baja de tres metros de fondo hacia Trenbide kalea. También se mantiene la plaza a cota de Trenbiden kalea sobre los aparcamientos bajo rasante.

-Sestra azpiko lerrokadura bat dator HAPOren "1.C.1. Trenbide 1" izeneko azpi-eremuarentzat zehaztu denarekin, eta eremuaren gainerako zatian (Trenbide 1 eta 3 zenbakietako eraikinak), proposatutako lerrokadura bat dator Arau Subsidiarioetan zehaztutakoarekin..

-La alineación bajo rasante corresponde con la definida para el subámbito "1.C.1 Trenbide nº1" del PGOU (huerta) y en el resto del ámbito (edificaciones de Trenbide 1 y 3) la alineación propuesta corresponde a la fijada en las NNSS.

-Eraikin berria 3,20 m-ko altuera izango duen estalpe batekin definitzen da Trenbide kalean, kale honetan aurrez eraikitako eraikinen

-La nueva edificación se define con un porche de 3,20m de altura en Trenbide kalea, siguiendo con los parámetros de los edificios

parametroei jarraiki. Altuera, bestalde, Trenbide 7 zenbakiko eraikinaren altuerara doituko da.

-Xehetasun azterketaren erredakzioak premia bati erantzuten dio, hain zuzen ere, **eraikina ordeztuz gero**, eraikinaren lerrokadura eta sestra berriak hirigintzako agiri batean jasotzeko premiari; izan ere, HAPOk Arau Subsidiario zaharretara jotzen du, eta hauetan, orokortasun handiz zehazten da antolamendua, eta horrexegatik, beharrezkoa da zehaztasun handiagoa izango duen agiria egitea.

-Xehetasun azterketak arestiko parametroak bakarrik zehazten ditu; ez du aprobetxamenduen edo kargen banaketarik egiten eragindako partzelen artean. Jabeek, kasu honetan, kudeaketa eta berdinbanaketa agiriak onartu beharko dituzte, xehetasun azterketan aurreikusitako eraikuntza garapena burutu ahal izateko.

-Xehetasun azterketa honek ez du inolako exekuzio unitaterik zedarritzen, aurkeztutako errekurtsoan adierazten denaren aurka.

Hala ere, egia da Udalak, bai arrazoi tekniko-konstruktiboak, bai arazo urbanistikoak tarteko, honako hau erabaki duela: Trenbide kalea 1 eta 3 zenbakietan dauden eraikinak ordezkatzeko esku-hartzea aldi berean eta era bateratuan egitea.

-Ondoan dauden garajeen zortzapen eskubideak obra berriko adierazpenetan bertan eratu beharko dira, eraikuntza espedienteen baitan. Hala, xehetasun azterketa ez da izango zortzapen horiek aurreikusi beharko dituen tresna.

-Beste alde batetik, xehetasun azterketak, eraikinaren lerrokadurak zehazten dituenean, espazio publikoaren lerrokadura ere zehazten du. Egia da, egin beharreko lagapenak berdinbanaketari dagokion agiria onartzen

prexistentes en esta calle y la altura se ajustará a la altura del edificio Trenbide 7.

-La redacción del estudio de detalle responde a la necesidad de que un documento urbanístico refleje las alineaciones y rasantes de la nueva edificación, **en caso de sustitución,** dado que el PGOU remite a las antiguas NNSS, y en estas se define con carácter muy general la ordenación, siendo necesaria la elaboración de un documento con mayor concreción.

-El estudio de detalle únicamente define los anteriores parámetros, sin que realice ningún reparto de aprovechamientos y cargas entre las parcelas afectadas. Las propiedades, en su caso, deberán aprobar los correspondientes documentos de gestión y equidistribución para poder llevar a cabo el desarrollo constructivo contemplado en el estudio de detalle.

-El presente estudio de detalle no delimita unidad de ejecución alguna, al contrario de lo que se señala en el recurso interpuesto.

Ello no obstante, sí es cierto que el Ayuntamiento, tanto por motivos técnico-constructivos, como por motivos urbanísticos, ha determinado que la intervención de sustitución de ambas edificaciones sitas en Trenbide kalea, 1 y 3 se realice de manera conjunta en el tiempo.

-Los derechos de servidumbre de los garajes adyacentes deberán ser constituidos en las propias declaraciones de obra nueva, dentro de los expedientes de construcción, no siendo el estudio de detalle el instrumento que haya de contemplar las servidumbres.

-Por otro lado, el estudio de detalle, al definir las alineaciones de la edificación, sí que define, al mismo tiempo, la alineación del espacio público. Evidentemente, las cesiones correspondientes se deberán de materializar

denean gauzatu beharko direla, edo bestela, eraikuntza espedientean bertan. Era berean egingo dira eraikigarritasuna handitu delako egin beharko liratekeen lagapenak.

cuando, en su caso, se apruebe el documento de equidistribución correspondiente, o en el mismo expediente de construcción. De igual forma, las cesiones que correspondería realizar por el incremento de la edificabilidad.

-Arestian adierazitakoagatik guztiagatik, proposatzen da aurkeztu den birjarpen errekurtsoa ezestea.

En virtud de todo lo anterior, se propone desestimar el recurso de reposición interpuesto.

Horiek horrela, Habitat Batzordeak ondoko akordioak har daitezela proposatu du:

A la vista de todo lo anterior, la Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes acuerdos:

**Lehenengoa.-** Arestian adierazitako arrazoiak tarteko, Trenbide kalea 3 zenbakian dagoen eraikinaren jabeek aurkeztu duten birjarpen errekurtsoa, Trenbide kalea 1 eta 3 zenbakietako xehetasun azterketaren behin betiko onarpenaren aurkakoa, ezestea.

**Primero.-** Desestimar, por las razones arriba expuestas, el recurso de reposición interpuesto por los propietarios del edificio sito en Trenbide kalea, 3 contra la aprobación definitiva del estudio de detalle de Trenbide kalea, 1 y 3.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau errekurtsogileei eta Trenbide kalea 3 zenbakiko jabeei jakinaraztea; baita xehetasun azterketaren sustatzaile diren Trenbide kalea 1 zenbakiko jabeei ere.

**Segundo.-** Notificar el presente acuerdo a la parte recurrente, propietarios de Trenbide kalea, 3, así como a los promotores del estudio de detalle, propietarios de Trenbide kalea, 1.

BOSGARRENA.- TRENBIDE 1 ETA 3 ZENBAKIETAKO XEHETASUN AZTERKETAREN TESTU BATERATUA ONARTZEA..- Aho batez onartu eta akordio bilakatu da Habitat Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

QUINTO.- APROBACIÓN DEL TEXTO REFUNDIDO DEL ESTUDIO DE DETALLE DE TRENBIDE 1 Y 3.- Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

"Udalbatzarraren Osoko Bilkurak, 2018ko uztailaren 19an egindako bileran, behin betiko onartu zuen Trenbide 1-3 zenbakietako xehetasun azterketa, baita eranskina ere, hasierako onarpenaren akordioan adierazitako baldintza berberetan.

"El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 27 de septiembre de 2018, aprobó definitivamente el estudio de detalle de Trenbide kalea 1-3, junto con su anexo, con las condiciones señaladas en el acuerdo de aprobación inicial.

Era berean, Trenbide kalea 1 zenbakiko Jabekideen Erkidegoari eskatu zitzaion, testu bateratu bat aurkezteko, non xehetasun azterketa, eranskina eta adierazitako baldintzak bateratuko baitziren.

Asimismo, se requirió a la Comunidad de Propietarios de Trenbide kalea, 1 para que presentara un texto refundido que refundiera el estudio de detalle, su anexo y las condiciones señaladas.

Ion Ulibarri Manzisidorrek, Jabekideen Erkidegoaren izenean diharduenak, xehetasun azterketari buruzko testu bateratua aurkeztu du.

Ion Ulibarri Manzisidor, en nombre de Comunidad de Propietarios, ha presentado el texto refundido del estudio de detalle.

Horretaz gain, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena aztertu da..

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98 artikuluan, eta bidenabar, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22, c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Habitat Batzordeak Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **AKORDIO** hauek har ditzala:

De conformidad con lo establecido en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22, c) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

**Lehenengoa.-** Trenbide 1-3 zenbakietako xehetasun azterketa onartzea, eta bidenabar, gogoraraztea era globalean esku-hartu beharko dela, garapen fase bakarrean.

**Primero**.- Aprobar el texto refundido del estudio de detalle de Trenbide 1-3, recordando que se deberá intervenir de forma global en todo el ámbito, en una única fase de desarrollo.

**Bigarrena.-** Behin betiko onarpenari buruzko akordioa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Segundo**.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Hirugarrena.-** Akordio hau interesdunei jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran."

**Tercero**.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, en la forma legalmente establecida."

<u>SEIGARRENA.- 2019KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA;</u>
***-Zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantza.***

<u>SEXTO.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES 2019;</u>
***-Ordenanza Reguladora de Tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.***

Aho batez onartu eta akordio bihurtu da Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

"Batzorde honek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

"Vista Ésta Comisión propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS:**

**Lehenengoa.-** Zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen

**Primero.-** La aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y

Ordenantzaren aldaketa lehendabizikoz onartzea, ondoren adieraziko denaren arabera

Aipaturiko proposamena ondorengoa da:

I.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIKO ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEA

O epigrafea: Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzeagatiko tasa

Etxez-Etxeko Zerbitzuaren erabiltzaileek egin behar duten ekarpen ekonomikoa Etxez-Etxeko Udal Zerbitzua Arautzen duen araudian jasotako kalkulu-sistema ezarri ondoren ateratzen dena izango da.

Hala, erabiltzaileek, gehienez ere, orduko ordaindu beharko duten zenbatekoa 14 eurokoa izango da asteko egunetako zerbitzurako, eta 19.40 eurokoa aste bukaera eta jai egunetako zerbitzuetarako.

**Bigarrena.-** Akordio hau guztiau 30 lanegunez, Udaleko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean jartzea, egon daitezkeen erreklamazioak edo oharrak aurkezteko.

**Hirugarrena.-** Era berean, aipaturiko epea igarotakoan, erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez baldin bada, aldaketa horiek behin betiko bihurtuko dira."

ZAZPIGARRENA.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. BIZITZAK ERDIGUNERA!.-

EAJ Udal Taldearen Zinegotzia den Gurrutxaga andreak honako adierazpen instituzional hau irakurri du:

realización de actividades administrativas, en los términos que se reflejan.

Las citada propuesta es como sigue:

I.- MODIFICACION DE LA ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS

Epígrafe O: Tasa por prestación del Servicio de ayuda a domicilio

La aportación económica que deben realizar las personas usuarias del servicio de asistencia a domicilio será la que resulte de la aplicación del sistema de cálculo recogido en el normativa que regula el Servicio de Asistencia Domiciliaria.

De todos modos, el importe máximo que las personas usuarias deberán abonar por hora será de 14euros entre semana y 19,4.euros los servicios realizados en fines de semana o festivos.

**Segundo.-** Someter el presente acuerdo información pública, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por el plazo de 30 días hábiles a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran deducirse.

**Tercero.-** Considerar que, si transcurrido dicho plazo no hubiera reclamación ni observación alguna, dichas modificaciones devendrán como definitivas."

SÉPTIMO.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES. ¡LAS VIDAS AL CENTRO!.-

Por parte de la Sra. Gurrutxaga, Concejala del Grupo Municipal del PNV, se procede a dar lectura a la siguiente declaración institucional:

“2019ko MARTXOAK 8

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

BIZITZAK ERDIGUNERA!

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, “Bizitzak Erdigunera!” lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta *Bizitzak Erdigunean* jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen.

“8 DE MARZO DE 2019

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

¡LAS VIDAS AL CENTRO!

En 2018 la sociedad recibió un mensaje claro ante la respuesta que se dio a los paros de mujeres convocados por el Movimiento Feminista el 8 de Marzo: se llenaron las calles y se impulsaron las redes de colaboración para expresar que la lucha iniciada por las mujeres para reclamar la igualdad de oportunidades no tiene vuelta atrás.

En 2019 siguen vigentes las reivindicaciones de las mujeres bajo el lema de “*¡Las vidas al Centro!*”. Este año también tomará las calles la demanda de las mujeres para tener vidas sostenibles, libres, diversas y dignas. Es necesario denunciar la precariedad laboral y pobreza de las mujeres, luchar contra todas las formas de violencia machista y rechazar la exclusión y el racismo.

Desde nuestro Ayuntamiento, trabajando para hacer desaparecer todos los sistemas de opresión y discriminación que afectan a las mujeres, también reclamaremos que las mujeres se planten y que se sitúen las *Vidas en el Centro.*

¿Y que implica esto exactamente?

En la medida en que todos los trabajos son necesarios para el sostenimiento de la vida, tanto los remunerados como los que no lo son, tenemos que sacar del espacio privado todo el trabajo de cuidados que nos toca mayoritaria a las mujeres; esto significa, que hay que socializar la responsabilidad de trabajo doméstico y de cuidado, y que los hombres así como las instituciones y entidades públicas tienen que asumir responsabilidad directa.

Resulta estratégico y clave equilibrar el uso del tiempo para que las políticas de igualdad sean efectivas. Entre los ámbitos de referencia en

Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

los Indicadores Europeos de Igualdad, intervenir sobre el del Tiempo acarrea cambios en los dominios del Poder, el Conocimiento, el Dinero y el Empleo.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Elgoibarko Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

Teniendo en cuenta estos antecedentes el Ayuntamiento de Elgoibar toma los siguientes acuerdos:

-Elgoibarko Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

-El Ayuntamiento de Elgoibar asume la responsabilidad de llevar adelante políticas públicas que garanticen la igualdad real y efectiva.

-Elgoibarko Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

-El Ayuntamiento de Elgoibar asume la responsabilidad de poner en el centro de sus políticas públicas las tareas de cuidado.

-Elgoibarko Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

-El Ayuntamiento de Elgoibar, con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista asume la responsabilidad de facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera."

Al fin, hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas para el próximo 8 de marzo por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres."

PSE-EE Udal Taldeko Bozeramailea den Alustiza andreak ados daudela dio.

La sra. Alustiza portavoz del Grupo Municipal PSE-EE dice que están de acuerdo.

Betiko gai bat da, eta bertako emakumeak egoera onenetarikoan gaudela, baina hemendik kanpo, leku askotan emakumeak zapalduta daude, eta ekonomiaren aldetik eta lanaren aldetik oso baztertuta, eta askotan, erderaz esaten den bezala, "ninguneadas"

Se trata de un tema de siempre, las mujeres de aquí nos encontramos en una de las mejores situaciones, pero fuera de aquí, en muchos lugares las mujeres están oprimidas, y discriminadas desde el punto de vista económico y laboral, y en muchas ocasiones, como se dice en castellano, "ninguneadas".

Horren aurrean kalea beti daukagu, eta horren kontra jende guztia plazaratu behar garela gure eskubideak defendatzeko.

Ante eso siempre tendremos la calle, , toda la gente debe salir y en contra de eso, en defensa de nuestros derechos.

Eskubideak, azkenean, denon artean egiten ditugu, eta beti berdintasunaren ondoan izan behar gara.

A fin de cuentas, los derechos los hacemos entre todas las personas, y siempre debemos de estar del lado de la igualdad.

Kontutan izan behar dugu, gure inguruan jende asko oso gaizki tratatuta dagoela, eta hori ezin dugu onartu, eta guzti hau kaleratu egin behar dugu.

Tenemos que tener en cuenta, que en nuestro entorno la gente está muy maltratada, y eso no podemos aceptarlo, y que todo esto lo debemos sacar a la calle.

Bozketa egin ondoren, adierazpen instituzionala aho batez onartu da.

Sometida a votación, la declaración institucional es aprobada por unanimidad.

ZORTZIGARRENA.- ESKARI-GALDERAK.-

OCTAVO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

Ez da ez eskaerarik, ez galderarik egon.

No se presentan.

Eta iluntzeko zazpiak eta hamar minutu direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztiau egiaztatu dut.

Y siendo las diecinueve horas y diez minutos, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Alkate andrearen oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta hemeretziko martxoaren batean.--------------------------------

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a uno de marzo de dos mil diecinueve.---------------------------------------

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA